



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

# Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2016ko URTARRILA - 170. zenbakia

## Hainbat berrikuntzarekin dator Bertso Eguna

Urtarrilaren 30ean ospatuko dugu Donostian Bertso Egunaren 47. edizioa. Osotara, egun osoan, 28 bertsolari ariko dira formatu ezberdinetan kantuan, eta horiekin batera zenbait artista gonbidatu izango dira. Hainbat aldaketa ditu aurtengo Bertso Egunak: goizeko ekitaldia bertso saio musikatu izango da eta gaueko afaria eta festa berriro Kursaalaren izango dira.

Arratsaldeko seietan hasiko da Kursaalaren Bertso Eguneko ekitaldi nagusia. Bertan, hamar bertsolari izango dira kantuan: Unai Iturriaga, Andoni Egaña, Oihana Iguaran, Etxahun Lekue, Fredi Paia, Xabier Terreros, Jon Maia, Oihana Bartra, Julio Soto eta Agin Laburu. Odei Barroso bertsolariaren Ztio taldea ere zuzenean ariko da.

Bertsozale Elkarteak eskatuta, Eneko Lazkoz, Urko Casado, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi aritu dira saiorako gidotzatzen.

Saio nagusiaren ostean afaria eta festa izango dira. Bi urteren ostean, berriro ere Kursaal aretora itzuliko dira biak. Emanaldi mamitsua izango da afalostean, eta 12 bertsolari izango dira kantuan: Amets Arzallus, Unai Mendizabal, Xabi

Igoa, Onintza Enbeita, Alaia Martin, Eli Pagola, Maddalen Arzallus, Eneritz Artetxe, Iker Zubeldia, Jexux Mari Irazu eta Unai Agirre. Alaitz Rekondok gidatuko du saioa. Bat-bateko bertsoak eta prestatutakoak tartekatuko dira, eta horietako batzuk musikatuak izango dira.

Bertso Eguneko beste nobedade nagusia goizeko ekitaldian izango da. Oraingoan ez da kalean egingo eta, horren ordez, oholtza gaineko saio berezia gauzatuko da Kursaal pareko Picachilla tabernan. Saio musikatuak izango da eta bertan Ane Labaka, Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi eta Miren Amuriza ariko dira kantuan. Rosi Lazkanok bertso jarriak eskainiko dizkigu eta Idurre Eskisabelek eta Estitxu Eizagirrek aurkeztuko dute sarrera doakoa izango duen saioa.

### Sarrerak salgai

Abenduaren 22an jarri ziren salgai Bertso Eguneko sarrerak eta Bertsozale Elkarteak bazkideok lehentasuna izan duzue ekitaldirako eta afarirako balio duten txartelak lortzeko. Urtarrilaren zazpitik aurrera bazkide zaretenok zein gainerako bertsozaleek [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) helbidean eskuratu ditzakezue mota honetako sarrerak. Ekitaldira soilik joateko sarrerak ere eskuragai daude atari berean, eta edonork har ditzake abendutik.



**BEÑAT  
GAZTELUMENDI ARANDIA**  
Donostia, 2015-XII-19

Milesker Iker Alustizari Esoain ta Sukiari Eizagirretar bixkiei eta Hernaniko kuadrillari ume beldurti hau jartzearen erratz batetik kantari. Zuek bezela bertso-eskoletan ari da jende ugari. Konpromisoa eta jolasa hitza direnez gauza bi bertso-eskolaz bertso-eskola belaunaldiz belaunaldi hau zuentzat da zeratelako ahots ematen ari isilik egon behar zuela esaten ziotenari.



Aurten 10 bertsolari izango dira arratsaldeko saioan.//XDZ

F.C.BAIIENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarteak / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xempelar Dokumentazio Zentrua  
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazio@bertsozale.eus

# “Euskal ahozko sorkuntzaren inguruko gaiak lantzen jarraituko dugu”

**Gustura agertu dira Xenpelar Dokumentazio Zentroko kideak azaroan egindako jardunaldien ondotik. Bigarren urtez egin dira Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak, oraingoan ipuingintza abiapuntutzat hartu eta Idatzitik Ahozkoa: Euskal Ipuingintza Egungo Liburuetan izenburupean. Mintzola Fundazioak, Tolosako Udal Liburutegiak eta Koldo Mitxelena Liburutegiak antolatu zituzten jardunaldiak.**

Nere Erkiagak, Xenpelar Dokumentazio Zentroko koordinatzaileak, Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak eman zutena laburbildu digu, baita aurrera begirako egitasmoak zeintzuk diren aurreratu ere.

## **Zein helbururekin antolatu dira aurtengo jardunaldiak?**

Ahozkotasunaren eta dokumentazioaren gaiak batuta lantzen jarraitzea erabaki da eta, kasu honetan euskal ipuingintzak, euskal tradizioko ipuinek eta euskaratutakoek, haurren liburuetan duen presentzia eta egoera aztertu nahi izan da.

Jardunaldien ondorioetan ikusi da asmatu dugula: ipuingintzari lotutako hainbat gai agertu dira, mundu aberats eta interesgarria baita, tradizioko ipuinen balioa berretsi da, eta baita sarritan mota honetako ipuingintzaren dagoen ezezagutza edo erresistentzia ere. Egun haurrei eskaintzen ari garen tradizioko ipuinen liburuak aztertuta, hutsune handiak daudela ikusi da, bai izenburu eta eduki aldetik, eta baita ipuinen testuetako ahozko baliabideen aldetik ere.

## **Gisa honetako ekimena antolatzen duzuen bigarren urtea da. Nolako izan da orain arteko esperientzia?**

Oso ona. Mintzola Fundazioaren Elkargunea deritzon lan-ildoaren barruan antolatu ditugu orain artekoak, bertsolaritzarekin batera euskal ahozko sorkuntzen eremua osatzen duten adierazpideen inguruan alegia, eta bietan esperientzia oso aberatsa izan da. Antzerkigintzaren dokumentazio egitasmoari buruzko

iritzi interesgarri ugari agertu ziren iazko jardunaldietan, eta hortik abiatuta, Euskal Herriko Antzerkizale Elkartarekin batera dokumentazio mailako egitasmo bat abiatu dugu; eta aurtengoak, ipuingintzaren alorrean, esperientzia eta ondorio aberatsak ekarri ditu.

## **Zeintzuk dira beste elkarte eta erakunde batzuekin elkarlanean aritzearen onurak?**

Ahozko sorkuntza bakoitzak mundu oso bat dakar berekin eta horren berri jakiteko ezinbestekoa da dakiten elkarte eta entitateekin elkarlana. Jardunaldien diseinua liburutegi publikoekin batera egin dugu -Tolosako Udal Liburutegia eta Koldo Mitxelena Liburutegia-, liburutegiak beraiek baitira askotan liburu munduan aurkitzen diren hutsune eta arrakastak berehala sumatzen dituztenak. Eta egitura emateko orduan, ezinbestekoak izan dira ipuingintza mundua ondo ezagutzen duen Galtzagorri Elkarteen laguntza batetik, eta EIZIE eta ALDEE elkarten elkarlana bestetik. Asko ikasi dugu beraiei esker.

## **Aurrera begira zeintzuk dira aurreikusten dituzuen ildoak?**

Jardunaldiak antolatzeko ideia sortu zenean, Euskal Herrian dokumentazioaren inguruan sortzen diren gogoetak plazaratzeko izan behar zirela ikusi zen, ez baitaude mota honetako topagune ugari. Hasieran behintzat euskal ahozko kultur sorkuntzen inguruko gaiak lantzea beharrezkotzat jo da eta horrela jarraitzea ikusten dugu, gogoetarako eta plazaratzeko gai asko baitaude oraindik.



Azaroan egin ziren Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak.//XDZ

# Bardoak eta Kuadrilla artekoa hasiko dira hilabete honetan

**Taldekako ekimen hauek oinarritzko bertsolaritza sustatu eta harekin gozatzeko bestelako modu bat eskainiko dute Nafarroan eta Araban. 100 parte-hartzaile baino gehiago izango dituzte batak zein besteak.**

Urtarrilean bertan abiatuko dira Nafarroako eta Arabako taldekako egitasmoak. Bardoak, Nafarroako taldekako bertsolaritza ekimenak, hirugarren edizioa izango du aurtengoa. Horren barruan urtarrilaren 22tik martxoaren 19ra bitarte 23 saio antolatuko dira. Bertso-eskoletatik abiatuta, proiektu honek bertsolari eta bertsozaleen harrobia berri, gune berriak zabaldu eta bertsolaritza gozamen gisa eskaintzea du helburu.

Hirugarren edizio honetan, Nafarroako 16 taldek hartuko dute parte, 121 parte-hartzaileekin. Guztira, 71 bertsolari aterako dira plazara. Taldeak bertsolariek, aurkezleek eta antolatzaileek osatuko dituzte, esperientzia eta ibilbide handikoek zein hasiberriek.

Lehen fasea urtarrilaren 22tik otsailaren 7ra bitarte izango da. Taldeak bost ligaxkatan banatuko dira eta bakoitzak bi saio egingo ditu, bat etxean eta bestea kanpoan. Lehenengo saioak urtarrilaren 22an eta 23an egingo dira. Osotara, bost saio izango dira Bardoen lehen asteburu horretan: Lizarran, Donamarian, Beran, Barañainen eta Altsasun.

Bigarren fasea, berriz, otsailaren 19tik martxoaren 6ra izango da. Sei saio egingo dira bigarren fase horretan, sei talderekin. Azkenik, finala Etxarri-Aranazko frontoian gauzatuko da martxoaren 19an. Bigarren faseko sailkatutako hiru talde ariko dira kantuan; guztira, bederatzita bertsolari.

## Araban, laugarren aldiz

Bi urtean behin antolatzen den taldekako ekimena da Kuadrilla artekoa. Ekimen kolektiboa eta herrikoia da, Arabako bertso-eskolek sortzen duten egituraren oinarritzen dena. Arabako Bertsozale Elkartearen arabera, ekimen honetan taldeka parte hartzeak bertsogintza eta inguruko bertsolaritza mugimendua astintzen ditu, parte hartzea errazten du, bertso-eskolak indartzen ditu eta bertsozaleen sustatzen du.

Laugarren edizioa du aurtengoa. Bat-bateko 14 taldek parte hartuko dute, 51 bertsolari ariko dira kantuan, eta idatzizko 10 taldek. 3-6 bertsolariz osatutako taldeak egin dituzte: gai-jartzailea, epailea, musikariak, sukaldariak... ere taldekideak dira Hala, taldea parte-hartzailea izateaz gain, talde antolatzailea ere bada, bere herrian edo eskualdean topaketa antolatzeaz arduratzen baita.

Arabako 6 eskualdeetako taldeen artean 6 topaketa antolatuko dira, erronka izaerarekin. Eskualde bakoitzean topaketa antolatzen duen taldea Arabako beste talde batzuekin erronkan ariko dira, formatu ezberdinean: bertso-bolo, saio musikatua, koplak lehiaketa, oholza gaineko bertso-guda, bertso-herri kirolak, bertso-tloia...

Hilaren 16an egingo da Arabako Kuadrilla artekoaren aurkezpena, eta 23an hasiko da Izarran, Gorbeialdeko topaketarekin. Finala, berriz, martxoaren 12an izango da Argantzunen, eta bertan talde guztiek erronka ezberdinetan parte hartzeko aukera izango dute; erronkaz haratago, ordea, Arabako bertsolaritza eta euskararen festa izango da.

Nafarroako zein Arabako taldekako ekimenen berri zehatza [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webgunean aurkituko duzue. Horrez gain, [www.bertsoa.eus](http://www.bertsoa.eus) atariak ere Bardoen eta Arabako Kuadrilla artekoaren jarraipena egingo du.



Martxoaren 19an emango diote amaiera Bardoen edizio berriari.//XDZ



Sei eskualdeetako sei topaketa antolatuko dituzte Araban.//XDZ

# Koplak

## Urtarrilean hasiko dira herrialdeetako urteroko batzarrak

Urtea hastearekin batera herrialdeetako Bertsozale Elkarteek urteroko batzarrak egiteari ekingo diote. Araban eta Nafarroan egingo dira lehenengoak; biak hilaren 16an izango dira. Otsailaren 26an, berriz, Bertsularien Lagunak elkarteak bere urteroko batzarra egingo du eta biharamunean, 27an, Bizkaiko eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteek haienak egingo dituzte. Urteroko batzarrekin amaitzeko, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak martxoaren 5ean egingo du Batzar Nagusia.

## Transmisiorako lan-poltsa osatzeko deialdia Nafarroan

Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Hezkuntza Arautuan eta bertso-eskoletan bertsolaritza klaseak emateko eta eragiletzarako izan di-tzakeen beharretarako lan-poltsa osatzeko deialdia zabaldu du. Unibertsitateko diplomatu edo lizentziatu titulua izatea, EGA titulua edo baliokideren bat izatea eta gidatzeko karneta (B mailakoa) eta ibilgailua edukitzea eskatzen da. Informazio gehiago eskatzeko edo curriculuma bidaltzeko nafarroa@bertsozale.eus helbidera idatzi behar da.

## Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen gogoeta

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalaren sari banaketa ekitaldian gertatutakoaren harira, hainbat iritzi, kezka eta gogoeta sortu dira Elkartearen. Hori ikusirik, bazkideoi eta gizarte osoari, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen funtzionamendua eta jokamoldea azaltzeko abagune egokia dela iruditu zaigu.

Bertsozale Elkarteak kulturgintza eta euskalgintza ditu bere ekinbideak eta horretan ari da 1987an sortu zenez geroztik. Bertsoa ardatz eta bertsolaritza biziberritzea helburu, euskaratik eta euskaraz, hainbat ekimen antolatuta ohi ditu erakunde ezberdinekin elkarlanean.

Ekimen horiek burutzeko ezinbestekoa da bazkideon (bertsolari, bertsozale, bertso eskola...), erakunde pribatuen eta publikoen babesa eta laguntza, eta hala aitortu izan da ekitaldi horietan bertan. Zentzu horretan, Bertsozale Elkarteak babesa eta esker ona adierazten die bere kultur proiektua aurrera eramateko bidelagun dituen pertsona zein erakunde guztiei.

Kutxa Fundazioaren Gizarte Ekintzak, besteak beste, Mintzola Fundazioko jarduera, Xenpelar Dokumentazio Zentroa, Bertso Eguna, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa... burutzeko laguntza ematen du. Laguntza hori gabe ezingo lirateke ekintzok nahi bezala gauzatu.

Illunben jokatu zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean, eta horra iritsi arteko bide luzean, Bertsozale Elkarteak hainbat bidelagun izan ditu, tartean Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala. Eskertu ez ezik, erakundeok Bertsozale Elkartearen proiektuetan eta antzekoetan parte hartzea sustatu nahi eta behar da, horretarako zubiak eraikiz eta elkarlana bultzatuz, bakoitzak bere esparru eta erantzukizunetik, bertsozaleei eta herri honi, eskaintza ahalik eta oparoena egin ahal izateko.

Txapelketetan, berauek osatzen dituzten eragile guztiek dute beren espazioa (bertsolariek, bertsozaleek, borondatezko laguntzaileek, babesleek, hedabideek...). Bertsozale Elkartearen ardura da bakoitzari dagokion espazioa eman eta espazio horien kudeaketa egokia egitea. Elkarteak antolatutako ekitaldietan, parte hartzaile guztien arteko errespetuzko jarrera eraikitzea du helburu, bertsoa eta elkarbizitza baitaude kultur proiektu osoaren oinarrian.

Bertsolaritza eta bertsogintza izan dira protagonistak Gipuzkoako Txapelketako finalean (eta txapelketa osoan), eta protagonismo hori itzalean utzi zuen sari banaketa ekitaldian gertatutako tentsio egoerak.

Bertsozale Elkarteak bere gain hartzen du berak antolatutako saio guztiak ongi bideratzeko lana, ardura eta erantzukizuna, eta horregatik, aurrerantzean, berea den espazioan (ekitaldia egiten den aretoan, oholtzan, bitarteko teknikoetan...) aurrez adostu gabeko inolako esku-hartzerik ez du onartuko.

Gipuzkoako Txapelketak bertsogintzari, bertsolaritzari eta euskal kulturgintzari egindako ekarpenak dagokion lekua eta protagonismoa izatea da gure lehentasuna eta Bertsozale Elkarteak horretan jarri du eta jarriko du bere ahalegin guztia. Hori da Elkartearen bidea.

Mila esker bertsolaritzaren proiektuan sinetsi eta honen aldeko apustua egiten duzuen guztioi.

**Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak**